

Soziologia garaikidearen krisia

EGUZKI URTEAGA

Soziologiako irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
eguzki.urteaga@ehu.es

(The crisis of contemporary sociology)

Abstract

This paper claims that contemporary sociology is in crisis because there is a growing difference between reality and its intellectual representation. If this situation characterizes every scientific theory as long as it is a mere attempt to approach reality, it became problematical since the 1970's. The theories, concepts and methods proposed by sociology are not as useful as they were to understand society in its complexity. The reasons of this crisis —revealed by the absence of unity, the limits of a coherent vision of society, and the feebleness of its influence on society— must be searched in the partiality and the unidimensionality of sociological paradigms. Indeed, because of sociological, institutional and scientific mutations (society is changing, system and sub-systems are coming apart and the actor is coming back), contemporary sociology is disoriented. The theories built against classical sociology (in particular, symbolic interactionism and ethnomethodology, methodological individualism and strategic analysis, actionalism and genetic structuralism) all make the same mistake. They make a choice between actor and system, change and permanence, a kind of social organization and another, or deduce one from another, without considering the relations among them and without searching their integration. Precisely, it is necessary to do the contrary in accordance with two principles : every paradigm proposes relevant theories, concepts and methods and there is more proximity among them than many researchers think. Therefore, it is necessary to elaborate a theory of complexity trying to integrate different views.

Keywords: sociology, contemporary, crisis

Sarrera

Soziologia garaikidea krisian dago, besteak beste, bere batasun ezak, gizartearen ikuspegi koherente urriak, gizartean duen eragin murriztak agerian uzten duten erara, eta krisi hori paradigma soziologikoen partzialtasun eta unidimentsionalitatean bilatu behar da. Izan ere, mutazio soziologiko (gizartea geroz eta mugikorragoa dela, azpi-sistemak zein logikak bereizten doazela, aktorearen itzulera) instituzional eta zientifikoen ondorioz, soziologia garaikidea batasun gabe gelditu da. Hain zuzen ere, soziologia klasikoaren aurka eraiki diren teoriak, hala nola, interakzionismoa eta etnometologia, indibidualismo metodologikoa eta analisi estragikoa, akzionalismoa eta estrukturalismo genetikoa, hutsegite horretan erori dira. Teoria horiek eragilea ala sistema, aldaketa ala egonkortasuna, antolaketa sozial mota bat ala bestea aukeratu dituzte, beraien arteko loturak pentsatu gabe eta beraien intergrazioa bilatu barik.

Soziologia garaikidea

Interakzionismo sinbolikoa

Teoria interakzionistak aktorearen eta sistemaren arteko integrazioa arbuizatu du esanez ezin daitekeela eragileen jarrera ulertu sistematik abiatuz, bata bestearen ispilua balitz bezala. Dubetek dion erara, «gizarte eta gizabanako nozioak ez dira interakzionistentzako batere funtsezkoak, zeren errealitate sozialak interakzioen ekoizpenak dira». Izan ere, «ekintza soziala ez dute errolek, arauk edo baloreek erabakitzen, baizik eta aurrez aurreko harremanek. Aktoreek estratagemak eta gaitasunak erabiltzen dituzte beraien nortasunak finkatzeko eta besteenak gauzatzeko» (Dubet 1994, 82 or.). Zentzu horretan, egitura soziala ez da beharrezkoa gisa agertzen, Goffmanek (1967) berak onartu duen bezala: «ez naiz bizitza sozialaren egituraz arduratzen, baizik eta bizitza sozialaren esperientzia indibidualaz».

Ondorioz, eragilea ez da sozializazioaren, ezta egituren ekoizpena ere, zeren konprometitu dagoen interakzioek bere burua definitzen dute. Eragilearen funtsezko arazoa itxurarena da, norberaren eszenifikazioan, gizarteak berak eszena baten antza baitauka. Goffmanen gizabanakoak ez du mamirik, ezta motibaziorik ere. Interakzioak unean berean existitzen eta antolatzen dira eta aktorearen helburu bakarra bestearen ezagupena lortzea da. Hori dela eta, eragilea errol ezberdinekin jolasten da eta «errolen barneratzea benetakoa da, eta sinesgarritasunarentzako beharrezkoa, bestela eragileak gaizki jokatu luke». Hobeki ulertzen da nola Goffmanen ikuspegia zinikotzat jo den, zeren «horra non gizartearen irudi bat dagoen, eszenekin baina intrigarik gabe. Halaber, soziologia horretan ez dago ez intrigarik ez istoriorik, ezta karaktererrik ere: pertsonaien ekintzek ez dute ezer aldatzen beraien bizitzan» (Goffman 1967).

Halaber, paradigma honentzako, gizartearen antolaketa *orden interakzional* batekin pareka daiteke, ez litzatekeelako berezko orden sozial bat egongo, komunitate, klase harreman, merkatu eta politikaren itxura edukiko lukeena. Egitura horiek existitzen dira soilik aktoreen ekintzen, praktiken eta batez ere interakzioen bitartez, gizartea interakzio berezi eta anitzen ondorioa izanik. Bi pertsonen arteko nortasuna zein jarrera beraien arteko interakzioaren emaitza da. Kazetari lanbidearen antolaketa, erredaktore eta erredaktoreburuen, kazetari eta teknikarien, kazetari eta publikoaren arteko harremanek eratzten dute. Gizartean ere gauza bera esan daiteke, interakzionistak maila makro-soziologikoari gutxi interesatu badira ere. Hain zuzen ere, gizartea, ekonomia, kultura, politika eta komunitatearen arteko interakzio gisa ikusia litzateke.

Ez dago zentraltasunik, ezta koordinaketarik ere. Interakzioa une eta tesuinguru berean kokatzen da, eta ez dago aurretik finkaturik, ezta finkatzeko erarik ere. Zentzu horretan, merkatua eta komunitatearen arteko harremanak une historiko batean eta herri zehatz batean kokatzen dira, eta ez dago bien arteko lotura leiaztuen duen eredu eta egituratik: estatua edo Europar Batasuna. Halaber, kazetari eta teknikari harremanak ez dira historiaz josiak, kultura batean kokatuak edo lanbide nortasunari itsatsiak. Bestalde, ez litzateke egitura erregulatzailearik izango zeren Estatuak ez luke ekonomia eta sozialaren arteko harremana arautuko, ez baitauka gaitasun zein helbururik. Gizarteko balore zein errol sozialek ez lukete gizabanakoen interakzioa egituratuko.

Baina ordena interakzionala ez da ez egonkorra ez finkatua, indeterminazioa eta aldaketak nagusi baitira. 1920ko hamarkadan, Chicagoko etorkinen etorrera laborategi bat izan da erakusteko nola taldeen arteko elkartzak eta kulturen arteko ihardokitzeak berkonposaketa sozial egonkorren oinarrian dauden. Hori dela eta, hobe litzateke prozesuez hitz egitea egiturez berba egitea baino. Glaser eta Straussek (1964) «prozesu estruktural» edo «prozesuan dauden egitura» kontzeptuak eratu dituzte, ikusiz nola pertsonak erietxean hiltzen diren eta zer modutan instituzioak hori kudeatzen duen. Autoreek dioten modura, «egiturak, nahiko malguak eta ezaugarri mugatu eta erabakiak bezala ikusteko ordez, hobe litzateke prozesuak bezala ikustea» (De Queiroz & Ziolkovski 1994, 68 or).

Huguesek (1958) lanbideen aldakortasuna agerian jarri du, *karrera* kontzeptuaren bidez. Denbora sartu du lehen sinkronia eta behin betirako finkatua zen egituraren tokian. Izan ere, lanbidean sartzeko igaro beharreko etapez gain, gaitasun teknikoak lortzeaz gain, erakusten du gaitasun soziala ikasten dela. Karrean sartzak, aktorearen aldaketa eta berkonposaketa anitzak suposatzen dituzenez, karrera kontzeptuak aldaketa objektibo zein subjektiboak ekartzen ditu, kikapen sozialari lotuak eta eragiten dituen aldaketa subjektiboei sustraituak. Beckerrek berak «karrera desbiatzaile» nozioa erabili du marihuana erretzaile eta dantza musikarien azterketan. Horrela, denboran zehar gizabanakoarengan eragina duten bi prozesu agertzen ditu: arau eraikuntza eta behartzea, batetik, eta sozializazioa zein nortasun eraikuntza, bestetik. Goffmanek *Eroetxea* liburuan aztertzen duen erien «ibilbide morala» baliokide kontzeptuala da.

Indibidualismo metodologikoa

Bere izenak dioen bezala, paradigma honek indibidualismo erradikal baten apostua egiten du, non eragile-sistema bikoteak ez duen zentzu handirik. Determinismo soziologikoa erabiltzen duten korrontek kritikatzeko dituzte, «egitura sozialen despotismoa» eta «gizabanakoaren ikuspegi oso sozializatua» gaitzetsiz. «Eragile soziala maiz molda daitekeen pasta bat bezala ikusia da, eta honen gainean ingurugiroko datuak jarriko lirarteke, azken hauek bere jarrera derrigortuko liokete egoera batean ala bestean». Padioleauk (1986) gauza bera dio. Ikuspegi holistetan, gizabanakoa, automata eta gizartearen dekalomania bat bezala agertzeaz gain, sistemak manipulatzen du. Indibidualismo metodologikoarentzat, ordea, beharrezkoa da aukera eta ekintza indibidualetatik abiatzea.

Eragileen ekintza indibidualak interes arrazionalak gidatzen dituzte. Baina ez da erabateko utiliralismo bat, zeren gizabanakoek ez dituzte soilik interes ekonomikoak bilatzen, baizik eta «arrazoi onen» xerka dabilta. Boudonek dioen erara, «eragileak bere buruari arrazoi onak emango lizkioke zentsurazko denbora balu eta interpretazio horretara iristeko gustua balu» (Boudon 1986, 25 or.). Baliabide material zein sinbolikoak mobilizatzen ditu bere helburu propioak lortzeko. Zentzu horretan, errealitate sozialaz duen ikuspegia funtsezkoa da, zeren berak du ekintza norabidetzen. Baina aktorearen arrazionaltasuna mugatua da. Simon eta Marchek erakutsi duten moduan, eragileek ez dituzte aukera guztiak ezagutzen, ez dute ikuspegi sinoptiko bat, ezin dituzte beraien ekintzen ondorio zehatzak ezagutu, eta abar.

Izan ere, pertsonak sistema batean kokatzen dira. Indibidualismo metodologikoarentzako sistema, ekintza indibidualen agregazioaren ondorioa da. Adibidez, XVIII. mendean, Ingalaterrarekin alderatuta, Frantziako nekazaritza eta merkataritza azpiegituretuak ziren Frantziako lur jabeen erabaki indibidualen ondorioz, azken hauek nahiago zutelako hirietara etortzea handiki titulua lortzeko asmoz. Halaber, erosleek uste badute objektu baten prezioa igoko dela, horren erosketak emendatuko dira, prezioak gorantz ekarriz edo objektuaren eskasia eraginez. Hori da *konbinazio eragina*, *agerpen eragina* edo *agregazio eragina* deitzen duena. Boudonek dioen erara, «agregazio eragina edo sortze eragina sistema batean diren agenteek bilatzen ez duten ondorio bat da, baita elkarmenpeketasun egoera baten emaitza ere» (Boudon 1979, 98 or.).

Boudonen sistema ekintza indibidualen arteko elkarmenpeketasunean oinarritua dago, gizarteak merkatu baten antza baitauka bere oztopo eta aukerekin. Adibidez, enpresari batentzat, estatua oztopo gisa agertzen da kargu sozialak edo langileak bidaltzeko legedia gogortzen badu, baina baliabide bat bilaka daiteke diru laguntzak eskaintzen badizkio edo inbertsiorako informazioa ematen badio. Estatuarentzat egia dena beste egituren-

tzat ere hala da; hots, eskola, enpresa, sindikatu eta alderdi politikoentzat. Pertsonen kasua antzekoa da, zeren familiak, lagunak, lankideak, ezagutzak, baliabideak bilaka daitezke bere helburu arrazionalen gauzaketan: diru laguntzaren bidez, pertsona boteretsu bat aurkeztuz, ikasketak bukatzera bultzatuz, etab. Horrek aktorea estrategiak eratzera darama bere erre-kurtsoetatik abiatuz, oztopo edota aukerak kontuan hartuz, bere helburuak bete nahian.

Effets pervers et ordre social liburuan, Boudonek dio gizartea mugikorra dela eta aldaketa ekintza indibidualen agregazioaren eragina dela. Aldaketa soziala interes ezberdinen arteko gatazka eta kontraesanei loturik dago, baita eragin txarrei ere. Azken modelo horren bidez azaltzen du nola eskolaren masifikazioa ez den aukeren berdintasun bilakatu. «Familia bakoitzak eskola eskakizun handiagoa edukitzeak (...) eragiten du bakoitzak bere estatus soziala lortzen duela kostu altuagoan. (...) Ondasun kolektiboak ekoiztu nahi dituen ekintza kolektiboaren logikak ordezkarriz egitura oligarkikoak eragiten ditu, denentzat ondorio ezkorrak ukanez» (Boudon 1977, 47 or.). Horrez gain, ezberdintasun sozialak ez murrizteaz gain, zilegiztatu ditu, eragileek uste baitute eskolan gehiago inbertituz beraien estatus soziala aldatuko dela. Halaber, sistema unibertsitarioak eta lan munduak integra ezin ditzakeen pertsonak biderkatzen dira.

Bestalde, aldaketa soziala ez da soilik endogeneoa, marxistek (kapitalismoaren kontraesanen edo klase borrokaren eraginez) zein funtzionalistek (gatazken instituzionalizazio edo azpi kulturen ondorioz) idazten duten moduan, ala exogeneoa, Nisbetek (1984) aurreratzen duen gisara. Bata ala bestea izan daiteke, baita biak ere. Halaber, aldaketa sozial prozesuak gune ezberdinetan koka daitezke; hala nola, aurkako taldeen gatazkan, berrikuntza teknologikoan, taldeen *ethos*aren aldaketan, interesen aldaketan, enpresa baten sorreran ala desagerpenean, etab. Baina aldaketaren arrazoia ez da mekanismo orokorra, ezta besteak baino garrantzitsuagoa ere. Horren bidez, indibidualismo metodologikoa lege handietatik eta eboluzionismotik aldentzen da, ez baitu uste historiak zentzurik daukanik.

Estrukturalismo genetikoa

Estrukturalismo genetikoak aktorearen eta sistemaren arteko integrazioa aurreratzen du agentea sistematik ondorioztatuz. Zentzu horretan, teoria sistemikoa da, soziologia klasikotik ez aldenduz. *Le Métier de sociologue* liburuan esana den moduan, *determinismo metodologikoa* oinarri zientifikoa da eta teoria bakar batek ezin dezake ukatu bera ezeztatu gabe. Hori dela eta, soziologiaren helburua da, agenteen liluretatik eta usteetatik at joanez, beraien praktikak aztertzea erregularatasunak eta sistema ibilarazten duten mekanismo ezkutua agertarazteko. Zentzu horretan, egituren garrantzia eta eragina aipatzeak estrukturalismo hutsetik hurbiltzen du, eta subjektuaren desager-

pena dakar. Jarrera indibidualak ulertzeko ezinbestekoa da egitura eta harreman objektiboetatik abiatzea eta ez subjektibismotik.

Kanpokotasunaren barneratzea ulertzeko, Bourdieuk *habitus* eta *ethos* kontzeptuak sortu ditu. *Habitus*a, harreman objektibo eta jarrera zein egitasmo indibidualen arteko bitartekaria da, baldintza objektiboen barneratzea markatzen baitu eta ikasketaren zein gogoan sarraraztearen ondorioa baita. Barneratze horrek disposizio (ikusteko, sentitzeko, pentsatzeko, egiteko) joerak dira. Pertsona bakoitzak barneratzen ditu modu ez kontzientean. Bere bizi baldintza objektiboari eta ibilbideari lotuak dira sistema (zeren disposizioak beraien artean batuak dira) iraunkor (zeren disposizioak bizitzan zehar alda badaitezke ere, azkarki sustraituak eta egonkorak dira) eta transposagarri (zeren haurtzaroan ikasitako disposizioak eraginak ditu lan munduan) bat sortu du. *Ethosa habitus* kolektibo bat da, klaseari edo azpi-klaseari lotua izanik. Disposizio horiek agenteen ikusmoldeak eta praktikak erabakitzen ditu, horrela, Bourdieuk praktika fotografikoa aipatzen du esanez «argazki bakar batek erakusten duela, agentearen asmoetatik at, talde bati amankomuna zaion ikuspegi, pentsakera eta apreziazio eskema sistema bat» (Bourdieu 1965, 24 or.).

Aktoreak espazio antolatatu batean kokatzen dira. Bourdieuk (1980) zelai (Lahire 1999, 24-26 or.) kontzeptua sortu du egituraketa hori agertzeko. Izan ere, gizartea zelaiez (ekonomia, kultura, politika) eta azpi-zelaiez (literatura, zinema, musika, pintura) osaturik dago, eta eremu egituratuak dira beraien arau eta helburuekin. Baina egitura desberdindua da, esan nahi baita eragileek kokapen ezberdinak betetzen dituztela; ondorioz, agente menderatuak zein menderatzaileak daude eta estrategiak martxan jartzen dituzte zelaiko postu gorenak lortzeko. Horretarako beraien kapital ekonomiko, sozial, kultural eta sinbolikoak mobilizatzen dituzte estrategiak eratuz. Estrategia klasi-koen artean aurki genezake *estatus quo*arena (dominanteena) ala iraultzarena (dominatuena) eta itxura asko har ditzake: moderno eta tradizionalen ala ortodoxo eta heterodoxoen artekoa.

Menderatze sistema horren helburua kapital motak eskuratzea da. Kapital kulturala diploma mailari lotua dago, baita klase kulturari ere. Kapital soziala eragileak dauzkan harreman eta ezagutzei josirik dago, jakinik, Bourdieuk dioenez, «agente berezi batek duen kapital soziala daukan harreman sarearen zabalatasunari eta mobilizatze gaitasunarekin ebaluatzen da», eta bere lorpenak jartze eta mantentze lan bat eskatzen du. Kapital ekonomikoak itxura asko har ditzake; hala nola, lur edo etxeen jabetza, dirua ukatea edo irabaztea, enpresa bateko burua izatea. Kapital sinbolikoa prestigioaren edo ohorearen pilatzeko estrategietan, kapital moten aldaketan, besteen ezagupena lortzeko eraturako estrategietan edo harreman ez legitimoak zilegiztatzean gauza daiteke.

Aldaketa sozialari dagokionez, estrukturalismo genetikoak sistemaren berrekoizpenean iharduten du. *La Reproduction* liburuan (1970) Bourdieu eta Passeronen (1964) aztertzen dute nola eskola sistemak gizartearen berrekoiz-

pena laguntzen duen. Klase faboretuetako ikasleek unibertsitatean eta eskola handietan gehiengo osatzen badute eta emaitza hoberenak lortzen badituzte, kultura unibertsitario eta kultura burgesa parekoak direlako da. Oinordeentzako (Bourdieu eta Passeron 1964) jarraikortasun bat dago familiaren eta eskolaren artean eta, aldiz, haustura bat besteentzat (akulturazioaren itxura hartzen duena). «Ideologia apologetiko batek eskola sistemaren lehen eragileak diren klase faboretuei aukera ematen die oinordeen arrakastan beraien dohain natural eta pertsonalen baieztapena ikusteko». Zentzu horretan, «dohainaren ideologiak eskolaren eta kulturaren aurrean daukagun itsukeria agertzen du, eta arrakasta unibertsitarioaren zein jatorri sozialaren deskribapen arruntak birtute kritikoa dauka».

Hala ere, aldaketa soziala ez da erabat alboratua. Bere ikerketa historikotan erakusten du nola zelai eta azpi-zelai ezberdinak autonomizatu diren, Weber eta Durkheimen azteketak jarraituz. «Botere zelai baten agerpena beste zelai nahiko autonomoen sorrerari lotua dago, eta mundu sozialaren desberdintze prozesu batean kokatzen da». Literatur zelaia (Viala 1999) aztertzean erakutsi du nola XIX. mendean beste zelaietatik aldendu zen; hala nola, zelai politiko, ekonomiko edo filosofikoetatik. Autonomia lortzearekin, bere kapital eta helburu propioak sortu zituen, baita moderno zein tradizionalen arteko lehia ere. Halaber, zelai kontzeptua ez da ez erabat itxia ez aldaezina, zeren beste zelaiekin dauzkan harremanek eraginak dauzkate bere izaeran. Horrela, zelai ekonomikoak komunikabide zelaian (Bourdieu 1996) eraginak ditu, bere logika derrigortuz ala onartaraziz.

Soziologia garaikidearen krisia

Eragilea edo sistema

Aurkeztu ditugun paradigma ezberbinek aktorea edo sistema hobesten dute. Lehenik, kasu gehienetan, eragilearen edo sistemaren garrantzia eta eragina gutxiesten dituzte. Interakzionismoak eragilearen eta maila mikrosoziologiaren apostua egiten du, pentsatzen baitu sistemaren azterketak ez diola ezer ekartzen ekintza sozialaren ulermenari. Bere interesa gizabanekoen arteko interakzioan erdiratzen du, bere testuinguru zein unean, eta itxura litzateke aktoreen kezkarik handiena. Sozializazioaren garrantzia mugatua litzateke, zeren eragileak ez dira errolekin nahasten eta azken hauek erabiltzen dituzte beraien helburuen arabera. Egiturek ere ez lukete aktorearengan botere handirik, eroetxea bezalako *instituzio total* batean ere, antolaketa arauetatik at, gizabanakoek bigarren mailako egokipenak egiten dituztelako. Hala ere, sistemaren garrantzia mugatua da, uste baitute ukatu egin daitekela.

Etnometodologiak (Coulon 1987) interakzionismoaren oinarriak muturreraino eramaten ditu. «Arauk gutxi gorabeherakoak eta ezberdinak dira,

ekintzak adierazpen sinbolikoak eta errealitatearen eraikuntzak dira, eta gizartea errealitate horren adierazpen posibleetarikoa besterik ez da» (Dubet 1994, 84 or.). Zentzu honetan sistemaren izaera bera kolokan jartzen du, uste baitu sistemak ez daukala izaera objektiborik. Sistema soziologoek erabiltzen duten kontzeptu bat da, beste hainbaten tartean, ekintza deskribatzeko eta azaltzeko baliatzen dena. «Aktore-sistema bikotea arbuiauz, norabide etnometodologikoak akzionalismo erradikal eta ekintzaren teoria ez determinista sortzen du, zeren ekintza sozialak besteei kontu ematea eskatzen baitu» (Dubet 1994, 85 or.). Araoa da erlatibismo erradikalean erortzeko arriskua dagoela eta soziologia bildumen bilduma bilakatzen dela. Ondorioz, sistema kontzeptuak definizio asko badauzka ere, beharrezkoa da ekintza soziala ulertzeko.

Bigarrenik, sistema edo eragilea, bata bestetik ondorioztatzen dute. Indi-bidualimo metodologiakoaren ustez, gertakari makrosoziologiko guztiak ekintza indibidualen agregazioaren ondorioak dira. Eskolak, enpresak, alderdi politikoak, familiak ez daukate izaera propiorik osatzen duten eragileen ekintzez aparte. Errazegi ahazten du instituzioek daukaten egonkortasuna, baita ekintza indibidualak norabidetzeko ahalmena ere. Adibidez, hauteskunde batzuentzako botoa gizabanakoen aukeren agregazio gisa ikus daiteke. Ahaztea da bozkalariek kultura politiko bat daukatela, familia bateko kideak direla, enpresa-administrazio batean lan egiten dutela, komunikabideak irakurtzen-entzuten-ikusten dituztela edo alderdi politiko batzuekin identifikatzen direla. Halaber, hautesleak familian, eskolan, lagunekin edo elkarte batean sozializatuak dira, eta beraien ideia zein jarrera politikoak pixkanaka eraikiak dira. Hitz batean esanda, gizabanakoak, errealitate zehatz batean kokatzeaz gain, historia baten eramaleak dira.

Estrukturalismo genetikoak, aldiz, «agentea» kokatzen den egituretatik ondorioztatzen du. Hain zuzen ere, gizabanakoaren pentsatzeko erak, gustuak, ikusmoldeak, zelai sozialean betetzen duen posizioak erabakitzen ditu, zeren eragileak bere bizi osoan zehar *habitus* berezi bat barneratzen du eta hainbat disposizio dauzka. Disposizio horiek praktiketan gauzatzen dira eta nahikoa da praktikak begiratzea aktoreen *habitusa* ezagutzeko. Baina, eragileak ez dira sistemaren ekoizle gisa ikusiak, eta, jarduten dutelarik, sistemaren berrekoizpena laguntzen dute, eskolan agertzen den moduan. Zentzu horretan bourdieuk erabiltzen duen hiztegia esanguratsua da, zeren *agente* edo *praktika* kontzeptuak erabiltzen ditu eta ez eragilearenak edo ekintzarenak. Azken urte hauetan bere teoriaren mekanizमतasuna leuntzen saiatu den arren, aktorea ez da kontzientea, ezta hausnarketa bat burutzeko gai ere, barneratuak dituen egiturek bere baitan ekiten baitute eta ez baitauka egituretatik aldentzeko aukerarik.

Aurreratzen dudan hipotesiaren arabera, eragilea zein sistema loturik daude eta bata ulertzeko beharrezkoa da bestea kontuan hartzea, suertatu diren aldaketa soziologikoak ahaztu gabe. Izan ere, 1960ko hamarkadaz geroz-

tik, eragile eta sistemaren arteko banaketa ukaezina da. Orain arte instituzioek eta klase sozialek bitartekari eginkizuna betetzen zuten, instituzioek (eskola, armada, eliza, familia) gaitasuna baitzeukaten baloreak arau zein errol bilakaraketako, eta azken hauek nortasun. Aktoreen ekintzak errol zein araei egokitzen zitzaizkienez, gizartearen ibilmoldea arautua zen. Klase sozialek, sindikatu eta alderdi politikoen bidez, eginbehar bera betetzen zuten. Herri-tarren eskakizunak jaso, moldatu eta babesten zituzten legebiltzar edo senatuan, mobilizazio edo negoziazioetan. Baina instituzioak zein klase sozialak krisian daude, ez baitira gehiago lotura hori sortzeko gai.

Aldaketa horiek eramaten gaituzte aktorea eta sistemaren arteko harremana modu konplexuagoan aztertzeraz. Hain zuzen ere, eragileak testuinguru zehatzetan kokatuak dira. Erakunde formal (familia, eskola, lanbide, elkarte) eta informaletako (laguna talde) kideak izateaz gain, kategoria batzuetan kokatzen dira; hala nola, sexuan, jatorri sozialean edo adinean. Oro har, gizarte zehatz batean aurkitzen dira, bere ekonomia, kultura, politika eta komunitatearekin. Egitura horiek guztiak egituratzaileak dira, esan nahi baita gizabanakoen jarrerak eta ikusmoldeak moldatzen eta norabidetzen dituztela, baina, egituren eragina ahuldu denez, aktoreak bizi duen errealitatea eta ekiten dituen ekintzak ulertzeko gaitasuna du. Bere biziaren zentzua ez zaio erabat emana, baizik eta berak eraiki behar du eguneroko lan batean. Horrez gain, eragilea ez da bere errol ezberdinekin nahasten, zeren beraiekin urruntasuna hartzeko gaitasuna dauka, esan nahi baita bere praktika zein esperientzia, eta baita errealitatea ere, distantzian jar ditzakeela ikuspegi kritiko bat edukiz.

Aldaketa edo egonkortasuna

Aipatutako paradigmek, aldaketa edo egonkortasuna aukeratzen dute. Interakzionismoak, adibidez, errealitatearen mugikortasun iraunkorra aipatzen du. Maila mikro, meso eta makrosoziologikoan, aldaketa bititza sozialaren funtsa da, zeren interakzioak ez dira lehenago finkatuak (historiaren bidez), ez dira norabidetuak (errolen bitartez) eta ez dira egituratuak (instituzioen medioz). Lanbideen barruan, aktoreen karrera eta bergaukotze iraunkorra aipatzen du. Baina lanbideak aldakorrek badira, egonkorrek ere badira. Hain zuzen ere, kategoria ezberdinen arteko mugak egonkorrek izateaz gain, historia (gatazka, mobilizazioa), interes (soldata, prestigioa) eta nortasun (profesionala, soziala) baten eramaleak dira. Halaber, gizon eta emakume, zahar eta gazte, diplomatatu eta ez diplomatuen arteko harremanak iraunkorrek dira eta emakumeak, gazteak eta diploma gabekoak borrokatu behar dira arduradun karguetara iristeko ihardokitzeak gaindituz.

Halaber, indibidualismo metodologikoak aldaketetan ekiten du. Aldaketa soziala ekintza indibidualen agregazioaren ondorioa izango litzateke, izan dadila berrikuntza artistikoan, gune baten industrializazioan, gobernu

edo gehiengo politiko baten aldaketan. Aldaketen ondorioak ez lirateke helburu baten ondorioak, maiz konposaketa fenomeno baten emaitzak izanik, bere eragin kaltegarriekin. Egiturak ere ez lirateke eragileen ekintza eta interakzioetatik at ulertu behar. Gizartea merkatu bat bezain mugikorra izanik, zalantza nagusi litzateke. Teoria honek errazegi ahazten du egiturak denboran zehar mantentzen direla, instituzio politikoak adibide izanik. Hala ere, paradigma honek bultzatu dituen ikerketa batzuek, mugimendu sozialen azterketek adibidez, estatuaren egituraren egonkortasuna erakutsi dute. Bestalde, gizabanakoak sozializatuak dira, eta, ondorioz, erakundeak eta oro har gizarteak finkatu dituen arau eta errolak barneratzen ditu. Ondorioz, errol ezberdinen arabera dabilta, beraiekin nahastu ez arren, zeren beraietatik aldentzeak zigor formal eta informalak dakartza.

Estrukturalismo genetikoak, aldiz, gizartearen egonkortasuna eta berrekoizpena azpimarratzen du. Izan ere, zelai ezberdinen helburua bere izaera ziurtatzea da, zeren zelaiaren menderatuak izan arren, agenteek interesa daukate zelaia ez dadin sobera aldatu. Zentzu horretan «hobenkidetasun objektibo» (Lahire 1999, 25 or.) bat dago. Halaber, zelaiaren osaketak autonomizazio prozesu bat suposatzen badu XIX. eta XX. mendeetan, behin eraikita, aldaketak askoz ahulagoak izan dira. Horrela suertatzen da zelai zientifikoan, non paradigma handiak finkatu direnetik, zailagoa den paradigma berri bat sortzea eta biziaraztea. Halaber, zelaiaren arteko mugak ez badira behin betirako finkatuak, besteak beste, ekonomiaren eta sozialaren edo kazetaritzaren eta literaturaren artean, borroka bat dago muga horiek egonkorra eta argiak izan daitezkeen. Hitz batean esanda, paradigma honek ez du aldaketa soziala funtsezko gisa ikusten eta soilik bere inguruan sartzen ahalegintzen da historia integratu nahian.

Hemen ere diogu errealitatea bere konplexutasunean jorratzea beharrezkoa dela aldaketa eta egonkortasuna integratuz, betiere aldaketa soziologikoa kontuan hartuz. Izan ere, XX. mendeko bigarren zatia arte, gizartea aldaketa txikikoa zen egitura sozialari dagokionez. Mugikortasun soziala urria zen eta jarraitutako ikasketak, egindako lanak edo aukeratutako emazte edo gizona jatorri sozialak erabakitzen zituen. Mugikortasun geografikoa ere murrizta zen, eta lantokia, etxebizitza, elkarteak, lagun taldea, herri berean zeuden. Baina, pixkanaka, gizartea aldatzen hasi da industrializazioarekin eta, ondoren, postindustrializazioarekin: bidea eta autoa, trenbideak eta tren berriak agertu dira. Trukaketa ekonomikoak ere bidertu dira komunikabideekin batera. Klase ertain baten sorrera igarri da kontsumoaren orokortzearekin eta klaseen arteko hesiak leuntzen joan dira. Ondorioz, pertsonen, salgaien eta informazioaren mugikortasuna handitu da. Gizarte garaikidea, aldaketek zeharkatzen dute, eta ezin daiteke gehiago mende hasieran bezala pentsatu.

Hori dela eta, gizartea egonkortasunez osaturik dago. Izan ere, politika egonkorra da bere instituzio, alderdi politiko, kultura politiko eta helburuekin. Gauza bera esan daiteke kultura arloan bere elkarte, kultura eta hizkun-

tza mugimenduekin. Egonkortasuna ageri da, baita ere, emaztearen baldintzan, zeren menderatu posizioan jarraitzen du, bai lan moduan (soldata txikiagoak, langabezia handiagoa, lan baldintza okerragoak), bai familia arloan ere (haurren eta etxeko lanen ardura). Baina, gizartea geroz eta mugikorragoa denez, aldaketak ere kontuan hartu behar dira. Maila makro, meso eta mikrosoziologikoan kokatzen dira, esan nahi baita gizabanako, erakunde edo gizarte mailan kokatzen direla, baita anitzak ere, hots, ekonomia, kultura, politika, sozialean suertatzen baitira. Azkenik, aldaketak aurkakoak izan daitezke, besteak beste, desberdintze-berdintze edo kontzentrazio-ez kontzentrazio prosesuak une berean edo bata bestearen atzetik agertzen direlako.

Antolaketa mota bat ala bestea

Paradigma ezberdinek, gizartearen antolaketa soziala, mota batera ala bestera mugatzen dute. Indibidualismo metodologikoak gizartea ekintza indibidualen elkarmenpeketasun sistema bat bezala ikusten du, jakinik sistema jarrerara indibidualen konposaketatik datorrela eta egoerak sortzen dituela. Aktoreak gizabanako arrazionalak izango lirateke, interesak finkatutako helburuak lortu nahian, eta baliabideak edukiko lituzkete. Horiei esker merkatu batean sartuko lirateke beraien aukera eta oztopoekin, eta estrategiak gauzatuko lituzkete beraien helburuen lorpenerako. Baina ikuspegi honek ahazten du gizartea une berean sistema integratu bat dela. Kasu honetan, gizartea komunitate sozial baten antzerakoa da, eragileen integrazioa helburutzat izanik. Instituzioen bidez, gizartearen baloreak arau eta errol sozialak bilakatuak dira, eta azken hauek nortasunak; mekanismo garrantzitsuena sozializazioa da.

Estrukturalismoak, aldiz, gizartea indar harreman sistema gisa ikusten du. Zelai sozialean edo azpi-zelai bakoitzean, menderatzaileak eta menderatuak daude, zeren zelaia egitura desberdindua eta hierarkizatua da eta agenteek betetzen dituzten postuak dauzkaten kapitalari josiak dira. Horrez gain, egitura homologia bat dago azpi-zelaiaren artean, esan nahi baita politika zelaiaren zapalduak direnak ekonomia edo kultura zelaietan ere badirela. Ondorioz, borroka bat dago beraien artean zelaiaren kontrola lortzeko, bere mugak zehazteko eta kapitala berdefinitzeko. Hor ere, gizartea bere osagai bati mugatua zaio eta dena indar harreman eta dominazio ikuspegiatik aztertua da. Horrez gain, gizartea kultura batez osaturik dago eta gizabanakoen helburua ez da interesak emendatzea, integratua izatea edo besteak menderatzea (edo zapalkuntzatik ihes egitea), baizik eta subjektu bezala existitzea; hau da, norberaren bizitzaren jabe bezala agertzea.

Bestalde, paradigma batzuentzat antolaketa sozialak ez dauka edukirik. Interakzionismoak gizartea interakzio sistema baten moduan aztertzen du. Bi pertsonen arteko harremana gizartearen funtsa denez, nahikoa izango litzateke eredu hori orokortzea gizarte osoaren antolaketa ulertzeko. Arazoa da ez da-

kigula zeren artean suertatzen diren interakzioak, ez bada aktore indibidualen artean. Suposatzen da erakundeetan kokatzen diren pertsonen artean direla; hala nola, lanbide baten kategoria ezberdinen artean edo azpi-sistemen artean. Horrez gain, interakzioek ez dute, motibaziorik ez baitute integrazioa, subjektibazioa, interesa eta dominazioa bilatzen. Beraien helburu bakarra itxura mantentzea izango litzateke, eta estrategiak osatuko litzukete hori betetzeko asmoz. Halaber, interakzioak ez dira finkatuak, norabidetuak edo egituratuak, ez baitago gutxiengo erregulazio bat ekarri dezakeen historia edo egiturarik.

Hemen ere, gure hipotesia da beharrezkoa dela azpi-sistemak integratzea, betiere aldaketa soziologikoak kontuan hartuz. Hain zuzen ere, XIX. mendetik at batua zegoena bereizten doa, eta soziologo klasikoek mutazio hori ongi aztertu zuten. Durkheimen hitzetan, «batuak zeuden funtzio ezberdinak urruntzen joan dira, bizitza erlijiosoak adibidez, batzen zituen erritua, morala, zuzenbidea, artea eta zientzia bereiztu dira» (Durkheim 1955, 191-193 or.). Izan ere, politika eta erlijioa (sekularizazioarekin), ekonomia eta soziala (liberalizazioarekin), kultura eta erlijioa (zientziaren garapenarekin) edo politika eta ekonomia (estatuaren ahultzearekin) banatzen doaz. Gauza bera suertatzen da azpi-sistema bakoitzean. Banatzen doaz ekonomian, merkataritza eta finantza; kulturaren, zientzia eta artea; politikan, herritargoa eta alderdi politikoak; sozialean, langileak eta sindikatuak. Bakoitza bere autonomia lorzen joan da, bere logika propioaren arabera ibiliz.

Ondorioz, gizartea azpi-sistema autonomoz osaturik dago eta bakoitzak bere ibilmolde eta logika propioak dauzka. Ekonomia elkarmenpekotasan sistema bat da eta interes logikaren arabera dabil. Politika, indar harreman sistema bat da eta dominazio logikaren arabera jarduten du. Komunitatea integrazio sistema bat da eta integrazio logikaren arabera funtzionatzen du. Kultura sistema kultural bat da eta subjektibazioaren arabera dabil. Hala ere, azpi-sistemek sistema bat osatzen dute, hots, elkarrekin harremanak dituzte eta bataren aldaketak bestearengan eraginak ditu. Izan ere, ekonomiaren liberalizazioak batasun sozialean ondorioak dauzka lan baldintzen prekarizazioarekin eta politikoak martxan jartzen dituen politika publikoak, kultura arloan, eraginak ditu sorkuntza artistikoan. Bestalde, sistemak ez badauka zentraltasunik, atxikidura bat dauka, zeren instituzioak daude azpi-sistemen arteko harremanak arautzeko: udalak, diputazioak-departamentuak, komunitate autonomo erkidegoak-eskualdeak, estatuak, Europar Batasuna, ONU-OMC.

Konklusioa

Erakutsi dugun moduan, soziologia garaikidea krisian dago ikuspegi unidimentsional eta partziala eskaintzen duelako. Izan ere, aktorea edo sistema, aldaketa edo egonkortasuna, antolaketa mota bat edo bestea aukera-

tzen ditu. Paradigma ezberdinak soziologia klasikoaren aurka sortu dira eta ona txarrarekin bota dute bereizketarik egin gabe. Gizartearen ikuspegi orokor eta batu batera iristea ezinezkotzat eta arriskutsutzat jo da, baina, bata-sunik ez duenez, krisi sentimendu bat agertu da soziologoaren artean, baita publikoan ere, hor dago frogatuta gisa gizarte zientzietako argitalaritzaren krisia. Egoera horretatik ateratzeko beharrezkoa da eragilea eta sistema, aldaketa eta egonkortasuna, baita antolaketa motak ere integratzea, ez atzera itzuliz, baizik eta azken harmakadetan suertatu diren mutazioak kontuan hartuz; hau da, eragilearen agerpena, aldaketaren bizkortzea eta azpi-sistemen autonomizazioa. Ondorioz, errealitate soziala gerok eta konplexuagoa denez, kontzeptu zein paradigma berri bat sortzea beharrezkoa da konplexutasun hori jorratzeko.

Bibliografia

- ANSART, P. (1990), *Les sociologies contemporaines*. Paris: Seuil.
- BECKER, H. (1985), *Outsiders. Études de sociologie de la déviance*. Paris: Métailié.
- BLUMER, H. (1969), *Symbolic Interactionism*. Englewood Cliffs: Prentice Hall.
- BOUDON, R. (1973), *L'inégalité des chances*. Paris: Armand Colin.
- , (1977), *Effets pervers et ordre social*. Paris: PUF.
- , (1979), *La logique du social*. Paris: Hachette.
- , (1986), *L'idéologie*. Paris: Fayard.
- BOURDIEU, P. eta PASSERON, J.-C. (1964), *Les Héritiers*. Paris: Minuit.
- , (1970), *La reproduction*. Paris: Minuit.
- BOURDIEU, P., et al. (1965), *Un art moyen. Les usages sociaux de la photographie*. Paris: Minuit.
- BOURDIEU, P. (1980), «Le capital social». *Actes de la Recherche en Sciences Sociales* 31, 1980.
- , (1980), *Questions de sociologie*. Paris: Minuit.
- , (1994), *Raisons pratiques*. Paris: Seuil.
- CORCUFF, P. (1995), *Les nouvelles sociologies*. Paris: Nathan.
- COULON, A. (1987), *L'ethnomethodologie*. Paris: PUF.
- DE QUEIROZ, J.-M. eta ZIOLKOVSKI, M. (1994), *L'interactionnisme symbolique*. Rennes: PUR.
- DUBET, F. (1994), *Sociologie de l'expérience*. Paris: Seuil.
- DURKHEIM, E. (1955), *Pragmatisme et sociologie*. Paris: Armand Cuvillier.
- GARFINKEL, H. (1967), *Studies in Ethnomethodology*. Englewood Cliffs: Prentice Hall.
- GLASER, B., STRAUSS, A. (1964), «Awareness Contexts and Social Interaction». *American Sociological Review* 29, 1964.
- GOFFMAN, H. (1968), *Asiles. Étude sur la condition sociale des malades mentaux*. Paris: Minuit.
- GOFFMAN, E. (1974), *Les rites d'interaction*. Paris: Minuit.
- HUGUES, E. (1958), *Men and Their Work*. Glencoe: Free Press.
- LAHIRE, B. (1999), *Le travail sociologique de Pierre Bourdieu*. Paris: La Découverte.
- MARCH, J., SIMON, H. (1974), *Les organisations*. Paris: Dunod.
- NISBET, R.A. (1984), *La tradition sociologique*. Paris: PUF.

PADIOLEAU, J.-G. (1986), *L'ordre social*. Paris: L'Harmattan.

SENNETT, R. (1979), *Les tyrannies de l'intimité*. Paris: Seuil.

URTEAGA, E. (2002), *Soziologia modernoa eta garaikidea*. Zarauz: Dakit.

—, (2002), «Por una sociología de la complejidad». *Revista Vasca de Ciencia Política y Sociología* 34, 2002.

—, (2005), *Sociología de la complejidad*. Paris: Mare et Martin.